

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaia amaigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

4.

Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaia amaigabea¹

Miren Ibarluzea Santisteban (UPV/EHU)²

Laburpena

Euskal literatura itzuliaren barne-eremuko eragile den aldetik, Kirmen Uriberen itzulpen-habitusaz aztertzen da lan honetan, itzulpenaren soziologia oinarri dela; hortaz, ondarroarraren itzulpenari buruzko ideiak, pertzepzioak eta jarrerak zein itzulpen-espereintziei buruzko gogoetak jorratzen dira. Ildo berean, itzulpen ikasketetako *fictional turn* ikerketa-lerroari jarraikiz, azalduko da nola errepresentatzen duen autorearen habitusa *Mussche* eleberriko pertsonaia itzultzaileak. Guzti horretarako, idazleari egindako galdetegia eta itzulpen-espereintziez zenbait itzultzailek idatzitako artikuluak eta guri erantzundako galdetegia baliatzen dira. Ikusiko dugu Uribek zer testu itzuli dituen eta zertarako, zer-nola parte hartu duen bere testuen itzulpenetan, itzulpenaren bidez nola kokatzen eta harremantzen den euskal idazle gisa (bertan eta nazioartean), zer jarrera duten berak eta bere itzultzaileek zubi-hizkuntzen erabilerari buruz eta zer dakarkien idazle-itzultzaileen arteko trukeak. Izan ere, harremanaren alderdi humanoa nabarmentzen dute denek ere, eta horixe da, hain zuzen ere, *Mussche* eleberrian agerrarazten den ezaugarrietako bat; errealtatearen eta fikzioaren arteko isla deskribatzeko ahalegina egingo dugu, beraz.

Hitz-gakoak: Kirmen Uribe, Euskal literatur itzulpena, habitusa, itzultzaileak fikzioan.

¹ Bihoazkie nire eskerrik beroenak Mari Jose Olaziregi irakasleari artikulu hau idazteko gonbidapenarengatik eta Kirmen Uriberi berari, galdetegiari erantzuteko prestutasunagatik eta honako honetan ere galdera eta zalantzei buruz gogotsu eta luze eta zabal aritzeagatik. Eskerrik asko, halaber, Nami Kaneko eta Edurne Alegria itzultzaileei.

² Argitalpen hau MHLI (Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan) IT 1047-16 ikerketa-taldearen US 17/10 (UPV/EHU) eta FFI2017-84342-P (MINECO) ikerketa-proiektuen parte da.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaia amaigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

1. Sarrera-hitzak: Kirmen Uribe, bidaia eta itzulpena

Mugimendu eta desplazamenduek Uriberen lanean duten garrantzia itzulpengintzak duenarekin lotu nahiko genuke ondoko lerroetan. Ezen itzultzea bidaiatzearekin edota testuak toki batetik bestera mugitzearekin parekatu izan da sarri metafora eta paralelismoak erabilita solastean. Euskarazko hitzak berak ere, *itzultzeak*, joan-etorriko bidaia baten bueltako bidea irudikatzen du: joan ostean berriz etortzeko egin beharreko urratsen segida, hain zuzen ere.

Mugaldeko espazioen aipamena gure eginez, itzultzaileak mugaldeko bitartekariak direla aipatu izan da sarri; bada, itzultzaileek egiten duten bitartekaritza hori, hizkuntzazkoa ez eze, kulturala eta politikoa ere badela azpimarratu nahi genuke (eta, ikusiko dugunez, horren kontzientzia bizia du aztergai den idazleak). Itzultzaileak fikziora ekarri direnean, askotan bidaiari gisa irudikatu izan dira (Delabastita & Grutman 2005, 11-34), eta, besteak beste, itzultzailea gidaria dela esaten da, edo bidaia-gida, edo garraiolaria, bidaiariak errekaren alde batetik bestera onik eramaten dituela, edota autorea bideratu egiten duela atzerrian. Azken ideia hori Uriberen ahotan ere entzun izan dugu: “Itzultzaileek eurek bultzatu egiten dute itzulpena” edota “Itzultzaileak zubi-lana eta motore-lana egiten du” bezalakoak esan izan baititu (Uribe 2013).

Hortaz, zer dio Uribek itzulpenaz? Zer da itzulpena harentzat? Zer, nondik, nora eta zertarako dakar eta darama Uribek itzultzaile gisa edo bere testuen itzulpenen bitartez? Hemen, Uriberen itzulpen-bidaia amaigabea agerrarazten ahaleginduko gara³, lehenago ere beste autore batzuekin egindakoaren bidetik (ikus, Ibarluzea 2016a, edo Gandara & Ibarluzea 2018). Izan ere, bide-zidor askoko ibilbidea da Uribek itzulpenaren esparruan egindakoa: itzulpenak irakurtzen ditu, idazketa-prozesurako tresnatzat darabiltza, bere testuak zein beste idazle batzuen testuak itzuli izan ditu, bere testuen itzultzaileekin harremanetan izan da eta itzultzaileak fikziora eraman izan du. Horren guztiaren berri emango dugu hemen, eta, horretarako, Uribek gaiari buruz erantzundako galdetegi izango dugu abiapuntutzat (Uribe 2013)⁴. Hemen, galdetegi hartakoak osatu egingo

³ Azterketa hori euskal literatur itzulpenaren barne-eremuaren egitura eta bertan sortutako dinamikak ulertzeko da baliagarri.

⁴ Besterik aipatu ezean, elkarrizketa horietakoak dira hemen egiten diren Uriberen aipuak.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidai*a amaigabea. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

ditugu bestelako oharrekin, irakurketekin zein itzultzaileek eta kritikariak han-hor-hemen esandakoekin eta idatzitakoekin. Horrez gainera, eta ildo berean, kontakizunean itzultzaile bat agerrarazten duen *Mussche* (2012) eleberriko zenbait pasarte aztertuko ditugu, idazlearen pentsamoldearekin lotzeko. Bestela esanik, Uriberen itzulpen-habitusua agerrarazteko saioa egingo dugu.

2. Kirmen Uriberen itzulpen-habitusua: diskurtsoak, jarrerak, esperientziak...

Uribek eta haren itzultzaileak euskal literatura itzuliaren barne-eremu transnazionala, norabide-anitza eta erlatiboki autonomia (Ibarluzea 2017, 3. atala) ehuntzen duten egituraren parte dira: gizarte-eremu jakin bateko eragileak dira, eta praktika eta jarrera zehatzak dituzte, habitus⁵ jakin bat, alegia: euskal literaturaren eta itzulpenaren eremuen ezaugarriek baldintzatuta ari dira, dagozkien indarren mende, baina, aldi berean, eurek ere eraikitzen eta elikatzen dute eremu hori, bai eta haren bilakabidea eta haren errepresentazioa ere.

Orokorrean, esan dezakegu espazio eleaniztunetan bizi ohi diren idazleek bezalatsu, Uribek oso gertuko sentitzen duela itzulpena, eta bat egiten duela sormen-ariketa eta itzulpen-ariketa gero eta gehiago banatzen duten idazleen jokamoldearekin (Ibarluzea 2015). Oinarrizko hezkuntza euskaraz jaso zuten idazleen belaunaldikoa da Uribe, eta belaunaldi horretako idazleek bezala, hasiera-hasieratik izan du euskara sormenerako hizkuntza (*idem*). Gaztelaniaz ere aise aritzen da, eta gaztelania ere sentitzen du bere hizkuntza, baina idatzi euskaraz idazten du, euskara du literatur hizkuntza: “Yo no he tenido que elegir mi lengua literaria, la lengua ya me eligió cuando nació” (Uribe 2009, *apud* Perret 2014, 22). Ohikoa da hori euskal literaturaren eremuan, ezen lehenago

⁵ Habitusari buruzko jakingarriak euskaraz irakurtzeko, ikus Ibarluzea (2017, 2. atala). Edonola ere, labur-labur, hona hemen zer den habitusa: gorputz jakin baten sakonean sedimentatutako egoera birtuala da, modu batera edo bestera erreakzionatuz bideratzen duena (Bourdieu & Wacquant 1992, 28). Beste hitz batzuekin esateko, gramatika unibertsal moduko bat da, barneratutako jarrera-sistema bat, zerikusia duena norberaren pertzepzioekin, pentsamenduekin, diskurtsoarekin, ekintzekin eta praktikekin. Era berean, eskema sortzailea ere bada, askotariko egoeren aurrean modu batera edo bestera jokarazten edo erantzunarazten duena, ezen barneratutako eskemaren arabera jarduten baitute subjektuek. Nolanahi ere den, habitusa ez da finkoa, aldatu egiten da bai egoera jakinaren arabera, bai subjektuen ibilbidean; hala, habitusari lotzekoak dira bai ohiturak, bai bat-bateko erantzunak. Bikoitza da habitusa zentzu askotan: barneratu eta kanporatu egiten da, kolektiboa eta pertsonala da; hots, norbanakotasuna eta gizartetetasuna artikulatzen ditu (*idem*).

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaiak amaigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

beste autore batzuek esan dutenez, elebitasun literarioa ez baita hain ohikoa euskal idazleen artean (Manterola 2011). Euskaraz eta gaztelaniaz gain, ingelesa ere badarabil Uribek, eta italieraz, katalanez, galegoz eta frantsesez irakurtzen duela dio elkarrizketetan.

Uriberen hitzak ekarrita, “oso harreman luzea” izan du itzulpenarekin, “bi eratakoa”: alde batetik, berak egin izan ditu itzulpenak (bere testuenak eta beste batzuenak) eta, bestalde, bere testuen itzulpenak egin izan dituzte beste itzultzaile batzuek, eta berak prozesu horiek jarraitu izan ditu. Hain zuzen ere, bere lanen itzulpenaren bidez kokatu da Uribe bai espazio nazionalean, bai nazioartekoan. Sally Perret irakasleak azaltzen duenez (2017, 26), merkatu ingelesean eta txinatarrean sartzea ere lortu du Uribek, non eta sartzan zailen den merkatuetan, alegia; bada, are zailagoa izaten omen da bide hori egin ahal izatea hizkuntza txiki bateko idazlea izanik; Perretrek zehazten duenez (2017, 24), Casanovaren eta Olaziregiren ideiak ekarrita, nazioartekotzea zailagoa izaten da idazle periferikoentzat. Aipagarria da, halaber, Espainiako Narratiba Sari Nazionala bere lanaren itzulpenaren bidez eskuratu zuela Uribek. Kasu horretan, itzulpena domestikazio-ariketa gisa ikusi beharrean, ekintza politiko gisa ere ulertu behar dela azaltzen du Perretrek, eta kontuan hartu behar direla, halaber, itzulpenaren eragin askatzaileak (2017, 28).

Itzultzailea eta itzulgaien idazlea izateaz gainera, itzulpen-irakurlea ere bada Uribe: “Euskaraz itzulpena sormena baino gehiago irakurtzen dut. Nire irakurketen gehiengoa itzulpena dela esango nuke. Datu inportantea da, horrek badu eragina sormenean ere” dio; izan ere, asko ikasten da itzultzaileenetik: “Itzultzaileak lagundu du euskara edertzen eta euskararen maila igotzen. Gure estiloan ere eragina izan du, guk askoz lakarrago idatziko genuke. Itzultzaile batek soluzio asko ematen dizkizu zuk gero idazteko”. Ildo horretan, “ikasbidea da” Uriberentzat itzulpena, eta idazketa-prozesuan kontsulta-tresnatzat darabil euskarara itzulitako testuen corpusa. Honela zioen *Mussche* eleberria bukatu berritan: “*Mussche* idazteko, euskarara ekarritako nobela asko irakurri ditut, eta horrek ere badu eragina. *Pereirak dioenez, Elurra, Loti Ederra...* Natalia Ginzburg... Liburu batzuk eduki ditut, gainera, ondoan, mahai gainean, eta begiratzen nituen”. Itzulpenaren esparruan autodidakta dela aitortzen du, bai eta gaztetan bere kabuz hasi zela ere; baina, ez luke bere burua itzultzaile gisa (ere) definituko. Kidetza ere

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaia amaigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

idazleen elkartean du egina, ez itzultzaileen elkartean. Edonola, ezagutzen ditu zenbait euskal itzultzaile, eta batzuk lagun ditu: “batzuekin miresentzen ere badut. Batzuen *fansa* ere banaiz” dio. Izan ere, itzultzaile batzuek “sortzen dute jarraitzaile talde bat. Ikusten duzu nork itzuli duen test bat eta esaten duzu: hau ondo itzulita dago”. Euskal itzulpengintzari buruzko iritzi orokorra galdetuta, iritzi “oso positiboa” du Uribek, eta bere belaunaldiko idazleengan eragin handia izan duela uste du, batez ere idazteko hizkuntzari dagozkion soluzio asko eta asko eskaintzen dituztelako itzultzaileek emandako euskarazko testuek.

Uribek bere testuak eta beste batzuenak itzuli izan ditu: auto-itzultzaile ibili izan da, bai eta itzultzaile ere.⁶ Bere testuei dagokienez, Gerardo Markuleta eta Ana Arregi itzultzaileekin batera aritu zen *Bitartean heldu eskutik* olerki-liburuaren gaztelaniazko itzulpena (*Mientras tanto dame la mano*) idazteko. 2004koa da lehenbiziko edizioa, 2008koa bigarrena⁷ 2010ekoa hirugarrena eta 2013koa laugarrena, denak ere elebidunak (euskara eta gaztelania). Bilduma horretako testuak beste proiektu batzuetarako baliatu izan dira.⁸ 2004an Uribek berak egindako itzulpena sinatzen du: *Ez naiz ilehoria* (2004) haur eta gazte literaturako lanaren *No soy rubia* (La Galera, Bartzelona) bertsioa. Bestalde, 2006an argitaratutako *Montañas en la niebla: Poesía vasca de los años 90* antologiarako bere olerkiak itzuli zituen euskaratik gaztelaniara, gainerako autoreek egin bezalaxe, eta Ana Arregik zuzendu zituen testuak.

Besteren testuak itzultzeaz denaz bezainbatean, 1997ko *Hegats* aldizkariko 15/16 alean, “Literaturbideak” atalean, argitaratu ziren Kirmen Uribek ingelesetik euskarara ekarritako Raymond Carverren hiru poema, *Ultramarine* liburukoak (“Baltsa-ohola”, “Jeanen telebista” eta “Bonnarden biluziak”). Autoreari buruzko sarrera bat dakar Uribek itzulpena baino lehen, eta olerkien jatorrizko bertsioa eta euskarazkoa, bata bestearen ondotik ematen dira. Bukaeran, Carverren olerki-liburuaren zerrenda dakar (frantsesez eta

⁶ Jarraian aipatzen diren itzulpenen eta horien xehetasunen berri izateko, batez ere EIZIEK (Euskal Itzultzaileen Zuzentzaileen eta Interpreteen Elkarte) kudeatutako *Nor da Nor* datu-baseari jarraitu diogu. Zenbaitetan, baina, datuak zehazte aldera, beste iturri batzuetara ere jo dugu.

⁷ Edizio horretatik aurrerakoetan *Mientras tanto cógeme la mano* izenburua darama bildumak, *coger* aditza *helduren* ordain zehatzagoa delakoan, ‘eman’ adiera daukan *daren* aldean.

⁸ Lehenengo ediziorako prestaketa-lanetan ari zirenekoak dira *basqueliterature* atarian 2002an argitaratuak. 2014an Perretrek atondutako *Kirmen Uribe Vidas V Ficciones* antologian txertatutako olerki gehienak bilduma horretakoak dira. Halaber, 2016an *Ezin esan* testuaren gaztelaniazko bertsioa, *No se puede decir*, Donostia/San Sebastián 2016 Kultur Hiriburuko proiektuen barruan Esther Ferrerrek diseinaturiko ibilbide batean txertatu zen.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaiia amaigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

gaztelaniaz argitaratutakoenak ere bai), eta J.M. Mendizabalek euskarara ekarritako *Katedrala* lana ere zerrendatzen da. Ildo bereko itzulpena da urte bereko *Hegats* aldizkariko 17/18 alean dakarrena: bertan, jatorriz polonieraz idatzitako Wislawa Szymborska nobel saridunaren bederatzi poema aurki daitezke, Kirmen Uribek, Rikardo Arregi Diaz de Herediak eta Magdalena W'grzynek euskaraz emanak (“Ahizparen laudorioa eta beste zenbait poema”). Honakoan ere sarrera-hitzak dakartzate, eta, itzultzaileek diotenez, jatorrizko testuez gain, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez argitaratutako itzulpenak izan zituzten kontuan bederatzi poemok itzultzeko.⁹ Aurrekoan bezalaxe, olerkiak ele bitan datoz (polonieraz eta euskaraz), eta bukaeran fitxa bibliografikoa dakarte. Talde-lanean aritu zen itzultzaile Kirmen Uribe beste behin ere Estonian, 2004an, beste idazle batzuekin,¹⁰ idazle-itzultzaileen mintegi batean: “bakoitzak besteen poemak itzultzen zituen bere hizkuntzara”.¹¹ Azkenik, *armiarma.eus* webgunean argitaratutakoak aipa daitezke: 2011n (Tomas Tranströmerrek Nobel Saria irabazi zuen urte berean) eman zituen Uribek “Euskarari ekarriak” atalean “Zeru amaitu gabea eta beste poema batzuk” (sv-eu)¹² (“Zeru amaitu gabea”, “Bekoz beko”, “Goizeko txoriak”, “Izena”, “79ko martxoan”, “Oroimenaren ikuspegia”, “Apirila eta isiltasuna” eta “Haikuak”).¹³ 2014an eman zuen atari berean Mark Strandek “Aitaren eresia” olerkia.¹⁴ Horrez gainera, emanaldietan eta gainerako testuetan ere txertatu izan ditu besteren poema itzuliak.

Uribek egindako itzulpen guztiak ez dira argitaratu, eta idazleak berak esana da ariketa moduan egin izan dituela, lehenago aurreratu bezala, ikasteko: “Batez ere poesian,

⁹ “Oso maite genuen Szymborska Rikardo Arregik eta biok, eta horregatik itzulpena. Nik gaztelania eta ingelesa erabili nituen, Rikardok frantsesa, eta Magdalenak polonieratik itzuli zituen zuzenean. Jatorrizkoa eta hiru itzulpenak kontuan hartuta egin genuen itzulpena” (Uriberen, komunikazio pertsonala).

¹⁰ Benno Barnard (Flandria), Sigurdur Pálsson (Islandia), Cathal Ó Searcaigh (Irlanda), Jan Erik Vold (Norvegia), Robert Alan Jamieson (Eskozia / Shetland Islands), Mererid Puw Davies (Gales), Doris Kareva, Kalju Kruusa eta Hasso Krull (Estonia).

¹¹ Mintegian parte hartu zuen Robert Alan Jamieson poetak, eta hark ere kontaktzen ditu ordukoak: <http://www.estlit.ee/centre/index.php?mact=News,cntnt01,detail,0&cntnt01articleid=20&cntnt01origid=27&cntnt01returnid=27>.

¹² Tranströmer itzultzeko, gaztelera-zko bertsioa baliatu zuen Uribek. “Tranströmer Nobel Sariaren aurretik ezagutzen nuen, eta saria eman ziotenean *Berria*-n idatzi nuen hari buruz” (Uriberen komunikazio pertsonala).

¹³ Hurrengo urtean eman zuen argitara Juan Naru Agirreurretak (Elkar, 2012) *Bizientzat eta hilentzat (poema guztiak, 1954-2004)*. Kirmenenak aurretik egindakoak dira; Agirreurretarenak bestelako bertsioak dira.

¹⁴ Uribek ingeleseko bertsioa erabili zuen Strand itzultzeko (Uriberen komunikazio pertsonala).

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaia amaigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

ikusi nuen euskaraz nola konpontzen ziren autoreen poemetan agertzen ziren problemak”.

Bestela esateko, idazten trebatzeko ariketa bat da itzulpena Uriberentzat:

Nik esaten nuen: nola idatziko zuen Plathek euskaraz? Edo nola idatziko zuen Carverrek euskaraz? Horrela hainbat egile itzuli ditut, hainbat hizkuntzatatik. Eta izan da oso ekintza intimoa, pribatua. Argitaratu ditut, baina batez ere izan da nik ikasteko eta nik etxean egin ditudan probak edo entseguak, ariketak, nik ikasteko idazten. Itzulpengintzak idazketarako balio izan dit, ariketa bezala edo entrenamendu bezala.

Itzulpen-estrategiez galdetuta, Uribek dio itzulpenetan ez zaiola gustatzen askatasun gehiegi ere, bertsio libreak ez dituela gogoko. Batez ere poemei lotuta egiten du aipamena: “Poemak bere momentua dauka, eta beste oso desberdina den bertsio bat ez zait gustatzen. Poema jaio den momentua errespetatu egin behar du itzultzaileak nire ustez, itzultzailea norbera izan edo beste bat izan”. Bestalde, hizkuntza-moldeari dagokionez, arnasa poetikoa gordetzen ahalegintzen da, erritmoa eta musikaltasuna berreraikitzen. Halaber, testuak “garbitzen” saiatzen da: “alegia, poema ez oso kriptiko geratzea estuegi ibiltzeagatik, euskara engrasatua erabiltzen saiatzen naiz. Azken finean idazleak bere hizkuntzan argi idatzi du eta gurean ere argi adierazita geratu behar da. Poemek egon behar dute euskaraz idatzita baleude bezala”. “Ariketa sortzailea da itzulpena” Uriberen ustez, eta ez da berdin itzultzen inoren testua eta norberarena: “Norberak egiten duenean berridatzi egiten du. Itzulpena sormenetik oso hurbil dago, eta azkenean literatura oso barruan sortzen da, asko intuizioz ere, eta ez da dena arrazionala. Orduan, itzultzaileak egin behar du leize horietara berriro sartu eta erritmo berria, baina antzekoa bilatu”.

Bere testuak beste hizkuntza batzuetara itzuli izan direnean, bi hautu egin izan dituela dio: poesiaren itzulpenetan, hizkuntza ezagutu izan duenean, itzulpenean parte hartu izan du: “Poemetan nik ere parte hartu nuen itzulpenetan. Poemen hizkuntza niretzat oso inportantea da, eta *Bitartean heldu eskutik* poema-liburuaren gaztelaniazko itzulpenean nik parte hartu nuen. Jakina, frantseseratu zenean ez nuen parte hartu, ingelesera egin zenean bai, irakurri egin nuen gaineratik. Errusieratzen eta beste hizkuntzetan ez dut parte hartu”. 2006an argitaratu zen Bordelen, Le Castor Astral etxean Kattalin Totorikak egindako frantses bertsioa. 2007an Estatu Batuetako Graywolf Press

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaia amaigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

argitaletxeak argitaratutako bertsio ingelesa Elizabeth Macklinena da.¹⁵ 2010ekoa da Moskun Gernika Press argitaletxean Roman Ignatiev-ek emandako errusierazko bertsioa.¹⁶ Urte berean, 2010ean, argitaratu zen Bartzelonako Proa argitaletxean katalanez *Bitartean heldu eskutik* liburuko eta Uriberen emanaldietako zenbait poema argitaragabe biltzen dituen antologia, Jon Elordik eta Laia Nogerak emana. Beste askotan bezala (eta aurrerago ere berriz ekarriko dugu gaia), itzultzaileen bitartekaritza-lana goraiatzeko du Uribe itzulpen horretaz aritzeko:

Itzultzaile-taldeak lan handia egin zuen, ez argitaratzeko, argitaletxea nik aurkitu nuelako, baina egin zituzten hitzaldiak eta irakurketak. Horrek pentsarazten dit baita ere literatura, batez ere narrazioa, bussinessa dela. Hemendik ateratzeko, diru-laguntzekin egin daiteke, baina argitaletxeekiko harremana oso komertziala izaten da. Hala ere, itzultzaileen bitartez lor daiteke beste era bateko harremanak izatea, bestelako edizioak, beste zirkuitu batzuk, humanoagoak, eta berdin irits zaitezke jende askorengana, hori ez du kentzen.

Zirkuitu edo harreman humano hori, eta idazle-itzultzaileen arteko konexioa, alde bietara gertatzen den zerbait omen da Uriberen eta bere itzultzaileen artean; hara zer dioen Nami Kaneko itzultzaileak: “autorea bera gertutik ezagutzeko aukera izateak ere eragin handia izan du nigan: uste dut berarekin izandako esperientziak, bai Euskal Herrian, bai Japonian izandako elkarrizketek, asko lagundu zidatela euskararekin eta euskal literaturarekin harreman intimoagoa garatzen” (Kaneko 2018). Izan ere, Kaneko ere bat dator Uriberekin, eta uste du harremanak bestelako zirkuituak sortzen laguntzen duela: “Gai horretan guztiz bat nator Kirmenekin. Nolabait esateko, literaturaren munduan itzulpenak sortzen eta mugitzen dituztenak ez dira merkatuaren esku ikusezinak, baizik eta itzultzaileen eta argitaratze-harreraren prozesuan inplikatzeko diren pertsona guztien eskuak (agenteenak, argitaletxeenak, liburu-dendetako eragileenak, irakurleenak, kritikarienak...)” (Kaneko 2018). Zirkuitu eta talde horien adibide da zenbait hizkuntzatar itzultzean beti itzultzaile bera aritzea.

Zubi-hizkuntzarik erabili behar ez izateari eta zuzenean euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultzeari aurrerapena deritzo Uribe. Bada, nabarmentzekoa deritzogu

¹⁵ Finalista izan zen PEN American Center erakundeak antolatutako 2007an AEBn ingelesera itzultitako liburu onenaren sarian.

¹⁶ Gaztelania zubi-hizkuntza erabilita egin zen itzulpena.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaiaren amaigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

Bitartean heldu eskutik olerki-liburuaren kasuan ia itzulpen gehienak egin direla euskaratik zuzenean.

Oso pozik nago beste gauza batekin ere: Bitartean heldu eskutik beste hizkuntza batzuetara itzultzeko, zuzenean euskaratik egingo zuten itzultzaileak topatzen saiatu nintzen. Adibidez, ingelesera Elizabeth Macklin-ek egin zuen, eta beti euskaratik, gaztelania zubi-hizkuntza izan gabe. Hor ere asko aurreratu dugu.

Bilbao-New York-Bilbaorekin gertatu zait itzulpen asko gaztelaniatik egin direla. Baina nik beti defendatzen dut editoreen aurrean ahal badute bilatzeko euskaraz dakien itzultzailea. Gertatu zait hori japonierarekin. Bilbao-New York-Bilbao 13 hizkuntzatan dago, eta japonierara egindakoa, adibidez, euskaratik egin da.¹⁷

Dena den, hizkuntza nagusiagoen morrontza dela eta (gaztelaniarena gure kasuan), aipagarriak dira Nami Kaneko itzultzaile eta ikertzailearen hitzak: “iruditzen zait hemen badagoela lezio bat: zeharkako itzulpena ere ez da guztiz baztertzekoa, zubigintza egiten baitu momentu batzuetan” (Kaneko eta Manterola 2016, 10); gainera, Kanekok uste du “hizkuntza nagusi batekin kontaktuan daudenek badutela abantaila handia hizkuntza horretan errekonozimendua jasotzeko eta, horri esker, zabalkuntza izateko beste hizkuntza askotan ere” eta “nahiz eta hainbat arazo sortu, hori ahalik eta ongien aprobetxatu beharko dela” (26-27). Bestalde, gogorarazi beharrekoa da zer-nolako estrategiak baliatzen diren lurraldetasuna agerrarazteko edo ezabatzeke, aldatu egin daitekeelako itzulpenaren funtzioa (Ibarluzea eta Olaziregi, 2016). Bada, azpimarratzekoa deritzogu Uriberen olerkiak hainbat ediziotan bertsio eleanitzetan emateari zein lan bera hainbat hizkuntzatan era berean argitaratzeak lurraldetasuna agerrarazteko estrategien parte izateari. Beraz, Kanekoren hitzak gure eginez, “gaztelaniaren bitartez euskal literaturara heltzeak gehien baldintzatzen duena horixe da: euskal literaturarekiko ikuspegia” (Kaneko eta Manterola 2016, 15), eta ez hainbeste zein hizkuntzatan gertatzen den gerturatzea. Kanekoren ustez, euskaratik zuzenean itzultzea bera ekintza sinboliko huts bihurtzen bada, balioa galtzen du eta hobeto deritzo “itzulpenaren emaitzan eta harreran nabaritutako den zerbait” ekartzea (25).

¹⁷ Zubi-hizkuntzei, itzulpen-estrategiei eta itzulpena egiteko idazleak itzultzaileei pasatako “vulgata” izendatzen zuten dokumentuari buruzkoak irakurtzeko, jo Kaneko eta Manterola (2016) artikulura.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidai a maigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

Narratibaren kasuan Uribek ez du itzulpenean parte hartu (itzultzaileen galderei erantzunez ez bada), eta euskal itzultzailearen alde egin izan duela azaltzen du:

Besteetan, nobelekin, hautu bat egin nuen, itzultzailearen alde. Nik ez dut nire lanik itzultzen, nahiz eta gaztelania edo ingelesa jakin. Hautu bat da 1) euskararen alde, euskara da nire idazketa-hizkuntza soilik eta 2) itzultzailearen alde, uste baitut itzultzaile onak daudela eta lan ona egiten dutela. Hori babestu egin behar da, nire ustez.

Azkena Markuletak egin du, eta oso ondo egin du Musscheren itzulpena, nik baino askoz hobeto. Orduan, zergatik egingo dut nik? Ezagutzen dut gaztelania, bai, baina, nire kasuan ez diot ekiten auto-itzulpenari nahiz eta elebiduna izan. Gauza bera esan zidan David Crossman nobelagileak, berak hebraieraz bakarrik idazten duela, nahiz eta ingelesa ere ondo kontrolatzen duen. Uste dut horretan ere normalizatu egin behar dugula, guk idazten dugu euskaraz eta gero itzultzaile batek botatzen du gaztelaniara, ingelesera, frantsesera... Behar den tokira. (...) Musscherekin saiatu naiz, eta lortu dut azkenean izatea prozesu normala: Seix Barralek kontratatu zuen Mussche, eta haiek kontratatu zuten Markuleta. Ez da izan nik egin eta beraiei eman, nik bultzatuta. Oso burugogor nengoen horrekin: “Ni alemaniarra banintz bezala jokatu” esaten nien, “zuek kontratatu itzultzailea”. Uste dut lehenengoetakoa izango dela horixe lortu duguna: argitaletxe komertzial batek euskara-espainola itzultzailea kontratatzea, ordaintzea, eze haiek ordaindu dute, diru-laguntzarik gabe.

Bilbao-New York-Bilbao eleberria euskaraz (2008) eta beste 14 hizkuntzatan irakur daiteke gaur.¹⁸ *Mussche*, berriz, euskaraz (2012), gaztelaniaz (2013, itz. Gerardo Markuleta), katalanez (2013, itz. Pau Joan Hernández), japonieraz (2015, itz. Nami Kaneko)¹⁹ eta txineraz (2015, itz. Huang Yehua) dago irakurgai. *Musscheren* itzulpenez hauxe zioen Uribek 2013ko elkarrizketan: “*Musscheren kasuan denek egin dute euskaratik. Hor aurrera goaz*”. Txineraren kasuan gaztelaniako bertsiotik egin zen itzulpena; Nami Kaneko japonierako itzultzaileak argitzen duenez, gainera, “Txinan, entzun dudanaren arabera, gaztelaniatik itzuli zuten *Mussche*, azalean gaztelaniaz

¹⁸ 2010, galegoa: itz. Isaac Xubín; 2010, katalana: itz. Pau Joan Hernández; 2010, gaztelania: itz. Ana Arregi Martínez; 2011, portugesa: itz. Pedro Vidal (Clara Joana Vitorinok gainbegiratuta); 2012, frantsesa: itz. Gersende Camenen; 2012, bulgariera (zubi-hizkuntza gaztelania): itz. Boriana Dukova; 2012, japoniera: itz. Nami Kaneko; 2013, errusiera (zubi-hizkuntza gaztelania): itz. Roman Ignatiev & Zoia Khibrikova; 2013, georgiera (zubi-hizkuntza gaztelania): itz. Vladimer Luaesabixvili; 2013, albaniera: itz. Bashkim Shenu; 2013, serbiera (zubi-hizkuntza gazt): itz. Zorica Novakov-Kovacevic; 2014, ingelesa: itz. Elizabeth Macklin; 2014, eslobeniera (zubi-hizkuntza gazt): itz. Marjeta Drobnič; 2017, estoniera: itz. Merelin Kotta.

¹⁹ Japonierazko itzulpen onenaren saria jaso zuen. Zehaztapen gehiago aurki ditzake irakurleak Kaneko eta Manterola (2016) elkarrizketan.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaia amaigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

agertzen zen izenburua, ez euskaraz, eta espainiar literaturaren nobedade bat balitz bezala aurkeztu zuten” (Kaneke eta Manterola 2016, 15). Kanekok berak indar egin izan du beti euskal idazle gisa ager zedin Uribe, literatura garaikideko bildumetan eta autorearen berritasuna azpimarratuta (*idem*).

*Elkarrekin esnatzeko ordua (2016) honako bertsio hauetan dago irakurgai: gaztelania (2016, itz. Jose Maria Isasi), katalana (2016, itz. Pau Joan Hernández), portugesa (2017, itz. Artur Gerra & Cristina Rodríguez), galegoa (2017, itz. Isaac Xubin) eta frantsesa (2018, itz. Edurne Alegria).*²⁰

Haur- eta gazte-literaturako lanen artean, Ez naiz ilehoria (2004), lehenago aipatutako gaztelarazko bertsioan ez eze (2004), galegoz (2004, itz. Hadrián Laureira), katalanez (2004²¹) eta asturieraz (2004, itz. Carlos Gonzalez Espina) irakur daiteke. Garmendia eta zaldun beltza (2003) ingelesez eman zuen Nere Letek 2015ean.

Bar puerto ikus-entzunezko proiektua hirueleduna da: gaztelaniazko bertsioa José María Isasirena da, eta ingelesezkoa Elizabeth Macklinena (2010).

Azkenik, Uriberen olerkien itzulpenak zenbait antologiatan edo webgunetan argitaratu izan dira ingelesez eta alemanez: 2006an Lyrikline webgune berlingarrean munduko poeten testuen artera ekarri zituzten Uriberen hamar olerki (lau olerkiren itzultzailea Petra Newiger da, sei olerkirena Ludger Damm),²² 2007an Amaia Gabantxok itzulitako Six Basque Poets argitaratu zen,²³ eta 2008an Kevin Prufer eta Wayne Millar kritikari estatubatuarrek zuzendutako New European Poetry antologian Uriberen hiru poema txertatu zituzten.

Aipatzekoa da itzulpen horietako asko euskal literatur eremuko bertako eragileek sustatuta eta diru-laguntza publikoei esker egin direla, eta hori berori euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren bereizgarrietako bat dela (Ibarluzea 2017). Edonola ere, Uribe ez da soilik zirkuitu horietan mugitu, eta goragoko aipuan ikusi dugunez, ahalegina egin

²⁰ Artikulu hau idazten ari garela, martxan dira serbierazko, grezierazko, japonierazko eta ingelesezko itzulpenen proiektuak. Halaber, filma egingo du Asier Altunak *Karmele* izenburuarekin (Uriberen komunikazio pertsonala).

²¹ Ez daukagu itzultzailearen daturik.

²² Testuak, itzulpenak eta audioak ikusgai daue hemen: <https://www.lyrikline.org/es/poemas/kukua-3072?showmodal=de>

²³ Antologia honetan olerki-itzulpen guztiak dira berriak, Amaia Gabantxorenak; antologia honetakoak ez dira, hortaz, Macklinenean jasotzen diren berberak (Uriberen komunikazio pertsonala).

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaiaren amaigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

izan du hizkuntza nagusietan bezala funtzionatzeko eta argitaletxe eta bide komertzialetan ere egoteko. Ildo horretan, hauxe da Nami Kaneko itzultzailearen jarrera, Uriberekin bat egiten duena:

Ildo berean, niri izugarri garrantzitsua iruditzen zait itzulpena zer argitaletxetan eta nolako bildumatan agertzen den. Eta, egia esan, ez zait hain ongi iruditzen mundu akademikoan edo euskal literaturan espezializatutako bilduma batean itzulpenak argitaratzea; hemen, Japonian ere, horrelako eskaintzaren bat jaso dudan arren, ez naiz animatu. Iritzi pertsonal bat da, eta ez dut ukatuko Nevadako Unibertsitateko edo argitaletxe alemaniar horren argitalpenen garrantzia, baina zalantza daukat, oso irakurle mota mugatuari zuzentzen zaizkiolako (...) Liburuak ateratzea oso inportantea da, baina nik lehentasuna jarriko nioke (eta jartzen diot) ahalik eta irakurle gehienei zuzentzeari. Horregatik, beti saiatu izan naiz mundu komertzialean bide bat egiten (literatura itzuliaren merkatu txiki-txikiarenean bada ere), euskal idazleen lanak argitaratu daitezkeen argitaletxe garrantzitsuenetan eta literatura itzuliaren irakurle guztiek kontuan hartzen duten bilduma batean edo bestean. (Kaneko eta Manterola 2016, 22)

Uribe itzultzeko motibazioak direla eta, argi dago Espainiako Sari Nazionalak baduela eragina autorearen ikusgarritasunean eta ezagutzan (Kanekek berak sari horren bidez ezagutu zuen *Bilbao-New York-Bilbao* eleberria), baina bestelako ezaugarriak ere aipatzen dituzte itzultzaileek. Esate baterako, Vladimer Luarsabixvili Uriberen georgierazko itzultzaileak literatura minoritarioen arteko trukea eta idazlearen lanaren unibertsaltasuna nabarmentzen ditu (2016, 136-139): “Uribek ihes egiten dio ohiko euskal gaiak jorratzeari; alderantziz, hura erabiltzen du balio batzuk lantzeko, eta horiek berdin dira erakargarri irakurle euskaldunarentzat, alemaniarrarentzat, ingelesarentzat eta beste edozein nazionalitatetako irakurle batentzat”.

Kanekek ere gisa bereko konexioa sentitu zuen: lotura sentitu zuen bere herrialdeko azken gertakariak (lurrikara eta tsunamiak) kostaldeko herrialdeetan eragindakoen eta *Bilbao-New York-Bilbao* eleberriko kontakizunen artean (Kaneko eta Manterola 2016, 27). Halaber, itzultzaile georgiarrak bezala, Kanekoren iritziz ere euskarazko itzulpenak sustatuta, “harreman propioak eta elkarrizketa berriak sor litezke” (7).

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaia amaigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

Edurne Alegria itzultzaileak ere oso gertuko sentitu du Uriberen azken eleberria, kontakizun diren gertakariak eta pertsonaiak ezagun dituelako: exilioan jaioa da Alegria, eta Urresti Letamendia familiarekin harremana izan du (Alegria 2018).

Badirudi, beraz, Uribek jorratutako gaien lokaltasuna eta globaltasuna, bi-biak (edo bien uztardura) direla Uriberen eta itzultzaileen arteko konexioa indartzeko heldulekuetako bat. Horrez gainera, idazleen eta itzultzaileen arteko harreman zuzena ere aipatzekoa da. Izan ere, eta lehenago aurreratu legez, Uribek garrantzia handia esleitzen dio itzultzaileekin duen harremanari, bestelako bideak, humanoagoak, jorratzen laguntzen diotelako:

Itzultzaileekin dudan harremanean ikasi dudana da bideak asko direla, ez bakarrik bide komertziala, baina baita literatura maite dutenen bidea ere, eta hori da itzultzaileak nola maitemintzen diren liburu batekin eta nola bultzatzen duten. (...) Eta horiek egiten dute literaturagatik (...) Fideltasunak ere sortzen dira, eta itzultzaile-taldeak sortzen dira idazle baten inguruan. Hori ederra da (...) Pentsa, adibidez, Bitartean heldu eskutik ingelesez ez zen aterako itzultzailea izan ez balitz (...) Itzultzaileek pisu handia izaten dute laguntzen, editorialak bultzatzen eta animatzen (...) Horregatik, itzultzaileekin harremana zoragarria da. Agente batek baino lan handiagoa egiten dute askotan, eta azkenean editoreak ezagutzen du itzultzailea, bere etxekoa baldin bada, eta fidatu egiten da. Agente batekin fidatzen da baina badaki harremana komertziala dela, eta abar. Itzultzaileak bultzatzen badu liburua, aukera gehiago ditu argitaratua izateko. Hori izan da oso polita niretzat.

Hain zuzen ere, itzultzailearen alderdi humano hori irudikatzeko saioa da Uriberen *Mussche* eleberrian agertzen den pertsonaia nagusiaren (itzultzailea bera) izaera, eta nolabait esateko, Uribek itzultzaileez duen ustea berreraikitzen du fikzioan.

3. Kirmen Uriberen habitusa paperezko itzultzailean islaturik

Alderdi humanoa agerraraztea Uriberen literaturaren ezaugarritzat jotzen du Perretek (2014, 7): “(...) lo que más llama la atención de las obras de Uribe, además de su originalidad y espíritu innovador, es su cosmovisión pacifista y su positiva apuesta por reivindicar lo humano en su complejidad”. Bestalde, fikzioan itzultzaileak agertzea ez da kontu berria, baina badirudi euskal literaturan *boom* moduko bat bizi izan dugula azken

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaiak amaigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

urteotan (Ibarluzea 2017, 5. atala)²⁴, eta, era berean, itzulpen-ikasketetan ere *bira fikzionala* deritzon ikerketa-joera aberastu dela. Ildo horretan kokatzekoa da, hortaz, azken gogoeta hau, ulerturik fikziora eramandakoa idazleen habitusaren errepresentazioa dela, eta euskal literatura itzuliaren barne-eremua deskribatzeko eta hari buruzko pertzepzioak agerrarazteko baliagarria dela (*idem*).

1937an Belgikan erbesteratutako Karmentxu Cundin gerrako haurren istorioarekin abiatzen da *Mussche*, eta hala, Espainiako Gerra Zibiletik Bigarren Mundu Gerrako testuingurura garamatza Uribek, hain zuzen ere Robert Mussche idazle-itzultzaile flandiarrenera (gaztetan hartu zuen beronek etxean Karmentxu Cundin). Hauxe zioskun Uribek Robert Mussche pertsonaiari buruz:

Norberak hautatzen ditu pertsonaiak, direnak direlako, eta norberak hautatzen du zer joko ematen dizuten nobelan. Gero moldatu egiten dira. Mussche benetakoa bada ere eta datu batzuk biografikoak badira ere, gehiena nire uzta da. Itzultzailea zela eta... Egia esan horrek erakarri ninduen nobela idazten hasteko. Nor da Mussche? Bada, euskal haur bat jasotzen duen itzultzaile flandiar bat. Itzultzaile izateak, hizkuntzak menderatzeak, horrek asko erakarri ninduen.

Itzultzailea oso pertsonaia erakargarria da, umila da, itzalean dago, bereganatu egiten du literatur tradizio unibertsala. Idazlea egolatragoa da... Ez pentsa, agian gehiago gustatzen zaizkit itzultzaileak, oso polita da besteen ahotsa partekatzea.

Hain zuzen ere, eleberriaren azken kapituluan autorea bera agertzen da kontakizunean, eta protagonistaren izaeraren sintesia eskaintzen digu, eleberria idatzi izanaren justifikazioarekin batera:

2010eko azaroaren 28an jaio zen gure alaba Arane. 2011ko apirilaren 24an hil zen nire lagun Aitzol Aramaio. Elkarrekin egon ginen azken aldiako batean hauxe esan zidan Aitzolek:

– Heroi baten istorioa kontatu behar duk.

– Baina niretzat ez zagok heroirik. Pertsonen alde hauskorra gustatzen zaidak niri, ez balentriak. Beldurra ematen zidatek heroiek.

– Ez nauk halako heroiez ari. Jende arruntaz ari nauk. Heroiak zaudek hor zehar, lehen eta orain, hemen eta mundu zabalean; heroik txikiak, jendea laguntzen dihardutenak.

²⁴ Euskal literatura garaikidean agertutako hainbat itzultzaile aztertzen dira bertan, *fictional turn* ikerketa-ildoari jarraikiz eta paperezko euskal itzultzaileen iruditegia beste literatura batzuetakoekin erkatuta.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaia amaigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

Isildu egin nintzen orduan. Gaur egun arrazoia ematen diot. Heroiak daude hor zehar, lantzean behin hil egiten zaizkigunak.

Bada, hementxe duzu heroi baten istorioa, nire bihotzeko laguna. (Uribe 2012, 194)

Itzultzailea heroi arrunta da, hortaz, Uriberenean, pertsonen alderdi hauskorra erakusteko modukoa. Hemen ere, Thiemek (1995) zioen gisan urruti dago itzultzailea “Connan itzultzailea” heroiaren pare agertzetik; baina, Uribek azaldu legez, askotarikoak dira gaur egungo gizarteak onartzen dituen heroiak, eta horretan itzultzaileak heroi izatera ere iragan daitezke. “Herói” kontzeptuaren definizio-aldaketak dakar, nolabait, itzultzailearen beraren irudi-aldaketa. Horrez gain, Thiemek aipatzen zuen “When not onlly invisible, we appear as marginal figures” (1995, 207) hura atzean utzita, figura bazterrekoa izatetik eleberriko protagonista izatera igaro da hemen.

Eleberrian iritzi sendoko pertsonaia gisa aurkezten zaigu Robert Mussche (Uribe 2012, 19), mintzatzen denean xarma handia du (*idem*), jendearekin ondo geratzeko dohaina du (35) eta dagokion entzuleari egokitutako hitzak erabiltzen daki (*idem*). Askatasun-gosez bizi den pertsonaia da, eta haren nahia: “munduan zehar libre ibiltzea zen, inolako loturarik gabe” (41). Pertsonaia honen langintzaz denaz bezainbatean, bankuko langilea da, baina handik kaleratu egiten dute, dirua lapurtzea egotzita (86); ordutik aurrera, kazetari (73) eta itzultzaile ibiliko da. Bestelako egitekoen artean, gerrako haurrentzat antolatutako eskoletan gaztelania-eskolak eman izana ere aipatzen da narrazioan, eta horretarako diktaketa-koaderno bat osatu izana bere gustuko idazleen esaldiekin, egile kutunen esaldiak kopiatzeko ohitura baitzuen (63). Harreman pertsonalei dagokienez, “solasaldietan” oinarritutako harremanak dituela nabarmendu daiteke. Eleberriaren ardatzetako bat dira Robert Musschek eta Herman Thierry lagunak (berau ere idazlea) dituzten elkarrizketa-hausnarketak. Harreman sentimentaletan ere bide beretik jokutzen du. Honela azaltzen du Yvonnek (Roberten maite-lagunak) euren harremana, Hermanekin hizketan ari dela:

– Ez dakit Robertek maite nauen –diotso Yvonnek, gaia aldatuz.

(...)

– Ez duela nirekin harremanik nahi. Berarentzat andre ederra naiz, azkarra, kultura. Solaskidea besterik ez. Kakatzarra. Ez da, gero, musukatzeko gai, ez du lastanik ematen, ez du... (Uribe 2012, 75)

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaiak amaigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

Itzultzailea isolamenduarekin lotu izan da sarri fikziozko lanetan (Ibarluzea 2017, 5.2 atala); bada, eleberri honetan joera horri dagokionez aldaketa-zantzuak hauteman daitezke: gizarte-harremanetarako arazorik ez du batere Robert Musschek; besterik da, ostera, bere maitasun-harremanak nola interpretatzen ditugun.

Istorioak aurrera egin ahala, Robert Mussche, bere ohiko bizimodua utzita eta engaiamendua bidelagun, erresistentzian sartzen da (Uribe 2012, 117). Horra hor itzultzaile engaiatuaren, aktibistaren eta eragile aktiboaren irudia, hain zuzen ere Logiek deskribatzen duena: “al traductor se le reconoce hoy como una figura que toma forma activa o que, por motivos políticos, toma partido” (2005, 43). Orduan, pertsonaia isilgordean dabilela, aipatzen da lehenbizikoz itzulpena:

Egunak bukaezinak dira, nire itzulpen lana amaituta daukat, baina liburua hain da ergela, ezen erabat amorratuta bainago bertan ageri diren sentimendu hain ez naturalekin. Eta gu geu benetako tragedia bat biziz bitartean, egiazko bizitzatik ateratako tragedia. Bada, horrexegatik nago hain haserre egile burges honek idatzitako estilo ariketa huts hauekin. Ez diot itzulpen lan honi inolako probetxurik ikusten, baina jarraitu egingo dut bi arrazoiengatik: lehena, denbora igarotzen laguntzen didalako; bigarrena, sos batzuk irabazteko balio digulako, hain da badaezpadakoa etorkizuna. (Uribe 2012, 105-6)

Autorearekin identifikatu ez eta itzulpen engaiatua egin ezinaz kezu da Robert. Testu-atalean argi azaltzen denez, bi balio ditu itzulpenak une horretan berarentzat: batetik, denbora-pasarako darabil; bestalde, diru-iturria da. Roberten itzulpen-hizkuntzak ere aipatzen dira eleberrian, bai eta lanbideari buruzko alderdi positibo bat azpimarratzen ere; etxetik lan egin ahal izatea:

Okena apartamentuan bertan lan egitea zen, egunero lantokira joan behar izan gabe. Hermanek lortu zion horretarako lan aproposa: itzulpenak egingo zituen. Alemanetik, frantsesetik eta gaztelaniatik nederlandarara itzultzeko nor zen Robert eta idazlea zen, ongi taxutuko zuen lan hori. Bruselako Cafe de Parisen geratzen zen astean behin Hermanekin eta hark pasatzen zizkion itzulgaiak. (Uribe 2012, 113)

Nederlandaraz idazteari (eta itzultzeari?) buruzko gogoeta ere egiten du halako batean:

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaiaria amaigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

«Nire hizkuntza ez da aberatsena», ebatzi du Robertek. «Zergatik idatzi nederlanderaz, Frantziako eta Alemaniako tradizio nagusien bitartean dagoen hizkuntzan?», galdetu dio bere buruari. «Munduan kokatzen nauelako pertsona gisa», esan du ahapeka, lurrean birrintzen diren euri tantei begira doala, ukabilak estutuz. «Ganteko Ferrerlaan kaleko langileen hizkuntzarik gabe ez nintzen ni neu izango». (Uribe 2012, 119)

Gatozen berriz itzulpengintzari buruzko irudietara, ezen Robertek ez baitu itzulpengintza ekonomia-iturri eta denbora-pasatzat jotzen soilik: ikasi ere egiten du itzulpengintzaren langintzan. Itzulpengintzaren baliagarritasun literarioari eta estilistikoari gorazarre egiten dio:

Itzulpengintzaz gogoetan jardun du kafetegiko mahaitxoan. Egun luzeetan idazle horien laguntasuna baino ez du izan Robertek. Idazle horien munduan sartuta ibili da, itzulgai ziren eleberritako ahotsak entzuten. Eta ahots horiek laguntzen diote urratsak aurrera ematen, bizidunen bozak baino areago. Bakardadeak behartu egiten du ez dauden horien konpainia izatera, aspaldi ikusi ez dituzunak, hildakoak, hortxe bertan daude, egunero kaletik gurutzatzen dituen pertsonen maila berean, beraiek bezain benetakoak dira. Urteetan aurrera egin ahala antzeko zerbait gertatzen da, bizi direnenak eta hildakoenak, horien guztien ahotsak izaten ditu norberak gomutan. «Bitxia da», pentsatu du bere bostean, «baina klandestinitateak lotu nau literaturara gehien». Bankuko lana utzita, sekula baino ordu gehiago igarotzen ditu irakurtzen eta idazten. Kanpoko idazle horiek guztiak nederlanderaz ipiniz ikasi egiten du Robertek. Gustuko du erbesteko hizkuntza horietan esaten dena bere hizkuntzan berresatea, inork zanpatu gabeko lurralde batean sartzea bezalakoa da berarentzat. Itzulpengintzak paisaia ezezagunetara zabaltzen dizkio leihoak edo, gauza bera dena, egundo idatzi gabeko esaldietara. (Uribe 2012, 118-9)

4. Azken hitzak: bidaiaren kronika laburra

Literaturarekiko eta itzulpenarekiko lotura afektibo hori berori autorearen habitusaren isla da, nolabait: Uriberen ustez, batetik, itzultzearen langintza ikasketak ekintza da euskarazko idazkuntzan, eta paperezko itzultzaileak ere itzulpenaren balio literarioa eta estilistikoa nabarmentzen dituela ikusi dugu. Bestalde, itzultzailea munduan pausoak emateko bidelaguna da, mundura askatzeko bidelaguna, engaiatua eta solasean aritzeko abila. Uribek bere itzultzaileengan topatu dituen ezaugarriak dira horiek, itzulpenaren bidez nazioko eta nazioarteko espazioan (unean uneko estrategiak erabiliz, bertsio elebidunak eta zubi-hizkuntzarik ez baliatzea ikusaraztea, adibidez) euskarazko idazle gisa agertzen lagundu diote (izan ere, hizkuntza txikietako literatura-praktikak

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaia amaigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

normalizatzeko asmo irmoa du Uribek) bai zirkulu komertzialetan, bai euskal komunitatearen zirkuluetan, baina beti trukearen alderdi humanoan indar eginez.

Bibliografia

Alegria, Edurne. 2018. Elkarrizketa argitaragabea.

Bourdieu, Pierre. eta Wacquant, Loïc J.D. 1992. *Reponses: pour une sociologie reflexive*. Paris: Editions du Seuil.

Delabastita, Dirk eta Grutman, Rainier. arg. 2005. *Fictionalising translation and multilingualism (Special Issue of Linguistica Antverpiensia New Series) 4/2005*. Antwerpen: Hogeschool Antwerpen, Hoger Instituut voor Vertalers en Tolken.

Gandara, Ana eta Ibarluzea, Miren. 2018. Representaciones transtextuales y heterolingües (para la memoria) en la novela *Manu Militari*. *Fontes Linguae Vasconum*, 125 (urtarrila-ekaina): 191-220. Honako webgunetik berreskuratua: <http://www.culturavarra.es/uploads/files/06-FLV125.pdf> (kontsulta-data: 2018-08-01).

Thiem, Jon. 1995. The Translator as Hero in Postmodern Fiction. *Translation and literature*, 4, 2: 207-18.

Ibarluzea, Miren. 2015. The Translation Habitus of Contemporary Basque Writers. *Estudios de traducción*, 5: 59-75.

Ibarluzea, Miren. 2016. Urretabizkaiaren eta Sarrionandiaren itzulpen-habitusak. *Fontes Linguae Vasconum*, 122: 153-67. Honako webgunetik berreskuratua: <http://www.culturavarra.es/uploads/files/04-Miren%20Ibarluzea%20issn.pdf> (kontsulta-data: 2018-08-01).

Ibarluzea, Miren. 2017. Itzulpengintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean: eremuaren autonomizazioa, literatur historiografiak eta itzultzaileak fikzioan. Doktorego-tesia. UPV/EHU.

Ibarluzea, Miren eta Olaziregi, Mari Jose. 2016. Autonomización y funciones del subcampo de la traducción literaria vasca contemporánea: una aproximación

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2020. *Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaia amaigabea*. A. Elizalde & M. J. Olaziregi (ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. 65-84. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-1319-125-6

sociológica. *Pasavento*, IV-2: 293-313. Honako webgunetik berreskuratua: http://www.pasavento.com/pdf/02Ibarluzea_Olaziregi.pdf (kontsulta-data: 2018-08-01).

Kaneko, Nami eta Manterola, Elizabete. 2016. Nami Kanekori elkarrizketa (bertsio osoa). *Senez* 47: 1-30. Honako webgunetik berreskuratua: <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/20161103/03manterola> (kontsulta-data: 2018-08-01).

Kaneko, Nami. 2018. Elkarrizketa argitaragabea.

Logie, Ilse. 2005. Una escena de traducción en América Latina: 'Las dos orillas' de Carlos Fuentes. In Delabastita, Dirk eta Grutman, Rainier arg. *Fictionalising translation and multilingualism*, 35-46. Antwerpen: Hogeschool Antwerpen, Hoger Instituut voor Vertalers en Tolken.

Luarsabishvili, Vladimir. 2016. Itzulpena, kulturen elkargune (Kirmen Uriberen eta Harkaitz Canoren poesia georgieraz. *Senez*, 47: 133-43. Honako webgunetik berreskuratua: <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/20161103/09luarsabishvili> (kontsulta-data: 2018-08-01).

Manterola, Elizabete. 2011. La autotraducción en la literatura vasca. In Dasilba, Xosé Manuel eta Tanqueiro, Helena arg. *Aproximaciones a la autotraducción*. Vigo: Academia del Hispanismo: 11-140.

Perret, Sally. 2014. Un tiempo espléndido. In *Vidas y Ficciones*, 7-13. Iruñea: Pamiela.

Perret, Sally. 2017. "Fish and Trees are alike": The Movement of Identity in Kirmen Uribe's *Bilbao-New York-Bilbao*. *Hispanic review* (2017ko negua): 23-45.

Uribe, Kirmen. 2012. *Mussche*. Zarautz: Susa.

Uribe, Kirmen. 2013. Itzulpen-ohiturei buruzko galdetegi argitaragabea.

Uribe, Kirmen. 2014. *Vidas y Ficciones*. Iruñea: Pamiela.